

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 233. alea - 2018ko urria

# ARI GARA! EMAN IZENA!



EUSKARALDIA

ARRIPREST  
365 EGUN



ekodenda,  
dietaetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14      943 19 24 42      sasoiiko@hotmail.com

# IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**SO URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



# kutxabank



Hazirik  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com



JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA      Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA)      Fax: 943 192 482



ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN


Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



ARKATZA  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA




Seven Clovers  
Irish pub

943 191 295



www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

GENOVEVA  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# AURKIBIDEA

04

## GUTUNAK

“San Rokeetako argazkiak”, “Kalean Kantuz-en I. topaketa urriaren 28an” ...

08

## ALBISTEAK

Aurrera jarraitzen dute zubiko obrek; Debako odol-emaileek oroigarria jasoko dute...

10

## EUSKAL JAIA

Aurtengo Euskal Jaiaren erreposoa egiten duen irudi bilduma

12

## EUSKARALDIA

Hilabete baino gutxiago falta da Euskaraldia abiatzeko. Izena emateko garaiz zabilta!

16

## LABURRAK

Irakurketa Kluba Udal Liburutegian, Jokin Lasak diskoa kaleratuko du, Gure Balioak Saria...

## Ez du jarraipenik izango *Berriketan Gaztea* atalak

Aldaketekin dator ikasturte berria. Aurrerantzean, *Berriketan Gaztea* atalak ez du jarraipenik izango aldizkarian.

Mendata institutuko Prentsa

Tailerrak urte askoan egin du gazteen-tzako atal hori, *Berriketan* aldizkariako erredakzio taldearekin elkarlanean. Aurten, ordea, ez da prentsa tailerrik

osatu ikastetxean eta, hortaz, ezingo du jarraipenik izan –orain artean bezalaxe, behintzat– ikasleen parte-hartzeak.

*Zuhatza Berriketan*



Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) denez lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak. Deba.

### Kolaboratzaile berezia:

Mendata BHiko prentsa tailerra.

### Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

### Hizkuntza ardura:

Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

### Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

### Publizitatea:

Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

### Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

### Maketazioa:

Leire Rubio

### Tirada:

1.400 ale

### Maiztasuna:

Hilabetekaria

### Inprimategia:

Euskalinpri

### Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## San Rokeetako argazkiak

Joan dira San Rokeak, eta laga dituzte, betiko legez, argazkiak. Pozgarriak eta alaiak gehienak; kontraesana dirudien arren, ilun eta negargarriak besteak. Ohiko bihurtu diren argazkiak.

Ohikoa normala dela sinistuta hazi gara: umetan gutako batzuek ez dituzte inoiz zezenketak ikusi, beste batzuek, bai, eta zenbaitek argazki odoltsuak gordetzen dituzte oraindik beren buru-ganbaretako zokorik ilunenetan. Gaztaroan, lagunartean, askok dilema bat izaten genuen: lagunekin batera zezenen sufrikarioa nozitu, edo aspertu. A zer festa-giro normala! Helduaroan (hau bai ondorio normala) ohiko bihurtu zaigu aukera zabal, aberats eta erakargarri horren aurrean hau entzutea: "ni ambientera joaten naiz, zezenketak ez ditut bereziki gustuko".

Horregatik, guk umetan, gaztaroan, Deban nekez ikusten genuen argazkia irudikatu nahi izan dugu antolatu ditugun elkarretaratzeetan. Tantaka baina badoaz handitzen! Eta, zeharka bada ere, begira aurkitu ditugun ume, gazte eta helduei, pankartaren atzetik, mezu hau igortzen saiatu gara: badago beste aukera bat, ez bat, askoz gehiago! Gasteiz, Katalunia, Balear uharteak, Tenerife, Frantziako herri mordia..., herri askok egin dute gure aurretik bide hori, bakoitzak bere formula propioarekin. Festak badirau zezenketen desagertzearen ostean!

Bestalde, penaz ikusi dugu pankarta horien beraien atzetik beste ohiko argazki

bat. Sinistu nahi dugu bihotza etxean lagata joaten zaretela plazara, baina hobe litzake umeak ere etxean lagako bazenituzte. Babes ditzagun gure etorkizunaren bihotzak!

Festei begira, hala ere, nola ez, behin eta berriz, eta berriz, kendu dizkiguten argazkiak datozkigu gogora. "Ez beti da ez" hainbeste entzun dugun garaiotan, ziur egon, ahal balu zezenak ere EZ esango luke. Horregatik, gure kartelak kendu eta "zezenketak bai" idatzi duzuenoi hausnarketarako gaia: "Berriz jarriko ditugu eta mesedez gure kartelak errespetatu"ren zein zati ez duzue ulertzen? Eta zezenaren sufrimenduarena? Horren zein zati ez duzue ulertzen?



Aritu dira gutaz, ez atseginegi, aurrean eta atzetik; animozko hitz suharrak ere entzun ditugu, zorionez. Dena den, eskerak eman nahi dizkizuegu herritarroi. Eskerrak elkarretaratzeetara gerturatutakooi, eskerrak, plazara joan arren, gure iritzia errespetatu eta aintzat hartzen duzuenoi, baina eskerrak, bereziki eta bihotzez, zalantzan egon eta hausnarketa



txiki bat egiten hasi zaretenoi!

Plaza erdian, aztoratuta, ero moduan, ez zintugun hara eta hona ikusi nahi, testigu izan nahi genuen, ordea. Atzeko atetik atera zintuzten arrastaka, gorri. Gero zintzilik. Atzean ume batzuk kuriositatez begira, begiak zabal-zabalik. Argazki gordinaren aurrean gu ere geureak ezin itxirik, tristura, amorru eta inpotenziari etsi ezinik.

Sarri entzuten dugu jendeak ikusteari utzitakoan bukatuko direla zezenketak, gainerakoan, erakundeek interes ekonomiko eta politikoak dituztela. Bat gatz horrekin, noiz gertatuko da, ordea? Eta azkarrago balitz? Plaza hutsei argazkia lehenbailehen atera nahi genieke guk!

Aspaldion ahaztuta bizi garen arren, NATURA GARA. Ezin gara itsu, mutu, gor egon gure zati bat ehunka begi grina-tsuren aurrean, torturapean, hiltzen den bitartean. Gero dioenak bego dio. Gu ez gaituzu, argazkia atera zain, geldu aurkituko.

*Debako zezenketen aurkako taldea*

## Txosna Batzordearen zozketako irabazleak

Debako Txosna Batzordeak jaietan egindako rifen zozketan bi zenbaki hauek izan ziren sarituak: 1639 eta 1010. Asteburu-pasa bat irabazi du lehenengo zenbakiaren jabeak eta Debako dendetan erosketak egiteko 100 euroko txekoa jaso du bigarrenak. Ondoko argazkian ageri

dira bi irabazleak, txartel sarituak eskutan dituztela.

Txosna Batzordearen izenean, eskerak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei.

*Debako Txosna Batzordea*



## Umeen Eguneko agintariak

2018. urteak genero berdintasunaren aldeko borroka du ezaugarri berezia. Joan diren jaietako Umeen Egunak ere eskaini nahi izan dio bere ahalegina borroka honi; eta, bigarren aldiz, lehenbizikoa 2016an izan zen, emakumea izan dugu alkate, agintari eta mikelte talde ezin hobea berekin duela.

Ezkerretik eskuinera: Serguey Unsain Vazquez, Leire Larrañaga, Telmo Corada, Ainhize Gonzalez (alkatea), Izalzing Mayorga, Naroa Larrañaga eta Mikel Redondo.

*Berdintasuna Egiten*



## Kalean Kantuz-en I. topaketa egingo da urriaren 28an Zatoz gurekin abestera!

Urriaren 28an (igandea) Euskal Herri osoko Kalean Kantuz-eko talde desberdinak gonbidatu ditugu Debara. Herri ezberdinetatik etorritako taldeek parte hartuko dute Kalean Kantuz-en lehenbiziko topaketa honetan eta denon artean kale giro polit bat sortuko dugu. Egun osoko egitaraua antolatu dugu hitzordurako eta herritar guzti-guztiak animatu nahi zaituztegu egun horretan herriko kaleetan zehar gurekin abestera.

Animatu, zuen zain egongo gara!

*Debako Kalean Kantuz Taldea*



Argazkia: Arrate San Martin

## Narciso Odriozola Alcibar

Joan den abuztuaren 9an, Narciso Odriozola joan zaigu 90 urterekin. Burdin Kurutz Mendi Taldearen sortzaileetako azkenengo kidea genuen.

Garai bateko mendizaletasuna ulertzeko, bizitzeko moldea eta ikuspegiaren lekukoa ere galtzen dugu berarekin. 50. hamarkadan mendizaletasuna bultzatu asmoz sortu zuten Burdin Kurutz. Mila esker erakutsi zenuten adoreagatik eta ez adiorik.

Goian bego.

*Joxe Mari Altzibar*



X, Vicente Esturo, X, Gregorio Susaeta, "Mallabi", Narciso Odriozola, Alberto Sarasketa, Eliseo Pagnon eta Iñaki Lete.  
Itzior. 1953-III-22.



## Barrutik astintzen gaituenak hausnartzen laguntzen digu

### Beldurra alde aldatuko da

Bai, beldurra alde aldatzea nahi dugu, mugimendu feministak urteak daramatza lelo hau erabiltzen. Ez dugu beldurra sentitu nahi emakume izate hutsagatik. Hainbeste aldiz entzun dugu “kontuz ibili”; hainbestetan entzun dugu komunikabide, epaitegi, polizia-etxe edota kaleetan eta etxeetan, erasotutak garenean, ia-ia gure errua zela, ea zer egin dugun hori gertatzeko... (gainera!) nazkatuak gaudela. Beldurrak gure askatasuna mugatzen du eta beldurraren eragile direnei ardura kentzen die. Ez dugu beldurrez bizi nahi, hori bai, tamalez, errealitate matxistak erne ibiltzera bultzatzen gaitu.

Batzuek esan digute ez zaiela ondo iruditzen leloa, “beldurra alde aldatzeak zer esan nahi du: gizonok beldurra pasa behar dugula?”. Bada, guk ez dugu inongo momentuan gizonen hitz egin, gure erreferentzia erasotzaileentzako da. Horiek izan beharko lukete, jendarte sano batean, erasotzeko asmoa izanez gero, beldurra pasa beharko luketenak. Hala ere, hausnarketa bat bideratu beharra dugu: egunerokotasunak erakusten du erasotzaileak gizonenak direla, eta erasotutak emakumeak. Ez da kasualitatea, emakumeak zapaldu eta gizonen pribilegioak ematen dizkien sistema baten ondorioa da. Horrek izan beharko luke eztabaidaren erroa eta kritiken helburu. Iristen al gara arazoaren sustraia ikustera?

Irudia ere jarri genuen, Lola Vendetta komiki pertsonaiarena, katana eskuetan, bere burua defendatu eta gero. Eraile, erasotu, torturatu, zapaldu egiten gaituzten eta sistemak (politikariek, poliziak, epaitegiek...) hori konpontzeko nahikoa egiten ez duen honetan, indarkeria sinboliko eta erreal matxista egunero jasan behar dugu (jendea asaldatu egiten da honen aurrean ere? edo dagoeneko normalizat dauka?). Egunkarietan egunero emakumeen kontrako erasoen inguruko hainbat notizia azaltzen diren honetan... emakumeoi “kontuz ibiltzeko” esan behar al diegu? Ez, ez dugu katanak hartuta kaletik ibiltzeko asmorik, baina bai gure burua

defendatzeko intentzioa, eta hori da pankarta honen bidez azaldu nahi duguna: emakumeon aurkako zapalkuntzaren aurrean dagoen inpunitatea ikusirik sentitzen dugun amorrua, eta autodefentsa feminista erabiltzeko egiten dugun deia.



### Jaietan ere orgasmoaren alde

Nor dago orgasmoaren kontra? Zeinek ez du plazera nahi bere bizitzan? Zer da pankarta honetaz deserosoa egiten zaiguna? Alu bat zegoela marraztua? Eskandalizatzen modukoa al da? Harrituta gaude. Emakumeon titiak, ipurdiak etengabe ageri dira publizitatean, komunikabideetan, produktuen salerosketarako eta gizonen desio sexuala pizteko (hau ere egiten zaigu eskandalagarria edota sustatu egiten dugu? Zenbat mezu sexista zabaltzen ditugu sareetan?). Emakumeoi maiz erreserbatzen zaigun lekua objektu sexualarena izanik.

Bada, natura inteligentea da (bejondeiola), eta plazera sentitzeko besterik ez den gorputz atala (klitoria) eman digu. Nola ez dugu aldarrikatuko hori, plazera, eta arlo guztietan, sexualitatean ere, subjektu aktibo izateko dugun determinazioa? Umorez eta sexualitatearekiko taburik gabe egindako pankarta aldarrikatzailea da, irribarreak espero genituen.

### Nací zorra porque princesas sobran

“Zergatik dago gaztelaraz pankarta?”. Bi arrazoi nagusi direla eta: 1) lau pankarta egin ditugulako eta bat gaztelaraz egotea ondo iruditzen zitzaigulako; 2) gaztelaraz hitz horiek duten zentzu bikoitza

erabili nahi genuelako, horren inguruko hausnarketa bultzatu asmoz. 2 mezu nagusi daude pankarta honetan:

1) Printzesa izatera (otzan, gustukoa izateari begirako izaki, besteentzako eder egotea ardatz duena, printze urdinaren zain egotea bizitzako proiektu duena) bultzatzen gaituen kultura matxistarekin ez gaudela ados.

2) Nahiago dugula azeri izan, hau da, “astutak”, bizkorrak... hori esan nahi du “zorrotz” hitzak gaztelaraz. Eta “zorrotz” hitzak esanahi bera al du? Hitz hau harri pisutsu bat bezala bota izan digute ezetz esaterakoan, eskotea eramaterakoan, asko ligatzerakoan... Ez, “Zorrotz” hitzak animalia emea definitzeaz gain, “puta, mala mujer, mujer despreciable” bezalako adiera herrikoiak ditu (hiztegiek dagoeneko onartuak), eta lehenago esan dugun legez, maiz erabili izan da bere askatasuna aldarrikatu eta bizi duen emakumea definitzeko.

Hori dela eta, nahiago dugu gure erabaki propioak askatasunez hartzen dituen emakume izan (deitu zorrotz, deitu ahaldundutako emakume... deitu nahi duzun bezala), printzesa baino. Edozein kasutan, argi duguna da ez garela izango patriarkatuak gutaz espero duen izaki otzana.

### Erasoen aurrean, autodefentsa feminista

Ez da agian hain modu probokatzailerik edo “punkit”an esandakoa, “egoki edo zuzenagoa” izan daiteke, “korrekto”agoa, hori da agian emakumeengan espero den tonua, eta hori dela eta, ez du kritika askorik piztu.

Jakin ezazue, azken finean denbora guztian ari garela lelo honek dakarren mezua modu batera edo bestera zabaltzen. Plazera, emakumeok defendatzeko dugun eskubidea, libre bizitzeko dugun eskubidea, aukera berak izateko dugun eskubidea... Eztabaida ugari piztu zituzten pankartek; bada, seguru zerbaiterako balioko zuela, izan ere, barrutik astintzen gaituenak, aukera emanez gero, hausnartzen laguntzen digu.

## Seme-alaben esanetara



Heziketa zorrotza jasan zuten guraso **ugarik** kontrako bideari heldu dio gaur egun: seme-alabak ez dezan negarrik egin, ez dezan minik hartu... gehiegi babesten dute, haren menpe geratzeraino.

Hautzaroan ezetzik jaso ez duen gaztea nerabazarora iristen denean, eztanda egin ohi du egoerak. "Lasai, nik lotuko dizkizut zapatak, oraindik ez dakizu eta, eta nik jantziko zaitut, hortzak garbitu eta eskolara eramango zaitut. Eta gauean, nire ohean egingo duzu lo, amesgaiztorik ez izateko". 8-10 urteko seme-alabari horrela hitz egitea ez da arraroa. Eskolara hauraren bila joan eta parkera joan nahi badu, nahiz eta euria egin, umearen nahia beteko du gurasoak, bestela haserretu egin daitekeelako.

Umetan denok erori gara noizbait patinetatik, eta belaunean zauria dugula ikusi ondoren, altxatu eta patinetan jarraitu dugu. Gaur egun, guraso askok neurrigabeko garrantzia emango diote zauriari, garaia aldatu direlako. Jarrera autoritarioen beldur dira, sarritan, beraien gurasoengandik eredu hori jaso zutelako.

Une jakin batean haurra patinetatik erori eta korrika joaten bagara bila, larrituta, ez da ezer gertatzen, ez du esan nahi gehiegi babesten dugunik, arazoa da jokaera horiek finko bihurtzen direnean, EREDU.

Gaizki moldatzen diren bikoteetan, bikotekideari eskaintzen ez dioten arreta umearengana zuzentzen omen dute hainbatetan, edo lana dela eta, seme-alabari denbora gutxi eskaintzen zaiola orekatzeko, gehiegi babesten dituzte.

Umeak aprobetxatu egingo du egoera, ohartzen delako haserretzen denean, aita eta ama urduri jartzen direla, edo triste, eta modu horretan jokatuz guraso-

ak "tiranizatu" ditzakeela.

Merezi ez arren, haurri nahi duena eta gehiago ematen diogunean, mimatzen ari gara, Olentzerotan opari mordoia jasotzen duenean, esate baterako. Baina gehiegi babestea arazo sakonagoa da, gurasoak jokatzen baitu seme-alaba bere parte bat izango balitz bezala eta ez da bereizteko gai. Umeak sufritzen badu, gurasoak sufritzen du. Hala, ez dio utziko gauza berriak probatzen, sufritu badezake, eta patinetan ez da ibiliko erori daitekeelako, igerilekuan ez du sartuko ura irentsi dezakeelako, elurretara ez du eramango katarroa harrapatu dezakeelako... Lotura afektibo arrisksua sortzen da.

Orain arte azaldutako jokabideen ondorio izan daitezke haurrak ez bereiztea zer dagoen ondo eta zer gaizki, egoera ezkorrei aurre egiten ez ikastea, harreman sozialetarako baliabiderik ez garatzea, ezezko bat jasotzen ez jakitea, joera beldurti, lotsati, ahul eta zalantziak sortzea... Babestuegi egoteak bi jarrera mota eragin ohi ditu: ondoko haurrak ez dienean harekin jolasten uzten, batzuk agresibo jarriko dira eta jo egingo dute, ez dutelako inoiz ezezkorik jaso. Beste batzuek pentsatuko dute beraien arazoa dela, ingurura ez direla ondo egokitzen eta beraien baitan itxiko dira, harremanik finkatu gabe.

Mugarik jarri ez eta beti eskatutako guztia izan duen 17 urteko gazteari nola jarri ordutegi bat, arau batzuk? Babestuegi izatearen ondorioz, ez du baliabiderik garatu negoziatzeko, modu egokian komunikatzeko eta kexatzeko, eta agresibitatea da erantzuteko duen era bakarra.

Gai sakona hausnarketarako, bene-tan!!!

Marian Larrañaga



ITSASO ICIAR

### Hari

Hari, bai. Hark harrapatu ninduelako oharkabean, ezeren esperoan, izan nezakeen oparirik txundigarrienarekin. Horretarako, hari, zuri, amari.

Zeinen zaila egiten zaigun askotan (edo beti) amari buruz pentsatzen ditugun hitz guztiak azaleratu edo esatea. Bai, ematen ez duen arren, oso lotsatia naiz horrelako gauzetarako. Amarengandik jaiotzen gara. Amak ematen digu bere gorputzetik, gure gorputzera, beharrezkoa dugun hori. Eta amaren gorputzak aurkitzen du modua, bertatik atera eta gurean sartzeko, bularretatik. Hortxe jarraitzen du amaren eta umearen arteko harremanak garatzen, izan ere, 9 hilabete lehenagotik sortu baita.

Eta, denborak aurrera egin ahala, esnezko hortzak erori eta behin betikoak irteten hasi zitzaizkidanean, tronboia ez, saxofoia jo nahi nuela aipatu nioanean, orduan konturatu nintzen zeinen beharrezkoa nuen ama, zenbat irribarre eta poztasun oparitu zizkidan ordura arte, eta zenbat momentu genituen oraindik bizitzeko, batera.

Hark nigatik egin zuen bezala, orain nik harengatik egingo dut: ama, zeinen ezberdina izango litzatekeen bizitza zu gabe, horregatik, zin dagizut ez nukee-la zurekin bizitako ezer, inoiz, aldatuko. Zuri, zuretzat. Mila esker, maite zaitut.

## Aurrera jarraitzen dute zubia konpontzeko lanek



Aurrera jarraitzen dute Debako zubiaren egonkortasuna bermatzeko obrek. Larrialdiko prozeduraren bidez ari dira lanean, zubia eror ez dadin eta kontserbazioa eta errehabilitazioa bermatzeko helburuz.

Irailaren erdialdean ekin zieten lehen faseko lanei eta obrak amaitzeko epea bederatzi astekoa izango zela aurreratu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. "Zubia eror ez dadin eta ondatsun eta pertsonen kalterik ez eragiteko eta kaltetutako bizilagunei mugikortasuna errazteko", azpiegitura "ahalik eta azkarren" konpontzeko konpromisoa berretsi zuten aldundiak eta Debako zein Mutrikuko udalek.

Zubiaren segurtasuna bermatuko duten lanei heltzeko aukerarik egokiena aztertu ostean, Freyssinet enpresa ari da lanak burutzen. Aldundiak azaldu zuenez, lehen faseko lanen aurrekontua 1.655.135,36 eurokoa izango da, BEZ barne. Fhecork enpresak zuzentzen ditu obrak, 77.573,10 euroko kostuarekin.

### Obren lehen fasean

Larrialdiko lehen fase honetan, euren helburua gangen egonkortasuna bermatzea da, eta, horretarako, egitura osagarri bat jarriko dute zubi gainean, ganga horiei eusteko.

Egitura osagarria bermatzeko atal hauek baliatuko dituzte: Deba aldeko lehen zutabearen eta Mutriku aldean dagoen bigarren zubi bularraren gainean, kolapsatutako gangak zurkaizteko tirante batzuk jarriko dituzte. "Aurrekaririk ez duen metodo berritzailea" erabiliko dutela nabarmendu zuten.

Egitura berriak, gainera, oinezkoentzako behin-behineko

pasabide bat izango du, bizilagunek zubia gurutzatzeko modua izan dezaten.

"Obren lehen fase honetan, gangak erortzea saihestu nahi da, baina jarduketara hori bigarren fase batekin bateragarri egiteko moduan definitu da. Larrialdiko lehen fasearen ondoren, birgaitze integralerako fasea abiarazi beharko da", argitu zuen Aldundiak.

Zubia osorik berreskuratzeko, kolapsatutako zatiak eta erdiko zutabea (behera egin duena) eraitsi beharko dira, eta gero, zimendu berrien gainean berreraiki. "Nolanahi ere, gertatu dena ikusirik, behin betiko birgaitze jarduketetan zimendu guztiak berriro beharko dira berriro, Mutriku aldeko zubi bularra izan ezik, hura harkaitzean zimendaturik baitago".

### Xilofagoen ondorioz

Uztailaren hasieran Debako zubiaren zati bat erori ondoren, Aldundiak Debako zubiaren kontserbazio egoera aztertzeko txosten teknikoa eskatu zuen abuztuaren hasieran. Txosten horretan ohartarazten zen arrisku larria zegoela bi ganga eta ibaian behera dagoen aldeko tinpanoa kolapsatzeko, horiek kaltetzen dituzten xilofagoen ondorioz. Bestalde, azterketak azaleratu zuen nabarmen galdu dela zutabearen zurezko parriladuraren azpiko materiala. Kolapsoa zuraren konpresioan izandako bat-bateko akats baten eraginez gertatu zen, eta sekzioa gutxitu izanagatik erresistentzia gaitasuna galdu izanari zor zaio. Akatsa ia aldi berean gertatuko zen hainbat pilotetan.

XIX. mendearen erdialdera eraikitako zubi hau harrizko azken eraikuntza zibiletako bat da, handik aurrera zubiak eraikitze burdina erabiltzen hasi baitziren. 2006tik, ibilgailuek debekatuta izan dute bertatik igarotzea, eta oinezkoen igarobide izan da soil-soilik. Gaur egun, egitura horrek ur fekalen, gasaren eta argindarraren hoditeria eusten ditu.

### Oinezkoentzako igarobidea

Uztailaren 5etik itxita dago zubia oinezkoentzako, inguruko bizilagunentzat horrek dakartzan kalteekin.

Foru Aldundiak irailean adierazi zuen oinezkoentzako behin-behineko igarobidea azaroaren erdialdean instalatuko zutela; aurreikusitako epeak errespetatuko direnik, ordea, ezin ziurtatu. Aldizkari hau inprentara bidean zegoenean, zubian ziharduten langileen arduradunek ez zuten data zehatzik argitu nahi izan, ezta Debako udal ordezkariak ere.



**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



Jari zure publizitatea  
Berrietan aldizkarian!

**Zuhatzeta**

943 191 383  
berrietan@zuhatza.com



## Debako bederatzi odol-emailek diploma eta oroigarria jasoko dituzte Eibarren

Debagoiena eta Debabarrenako odol-emailek hitzordua jarrita dute urriaren 27an (larunbata), Eibarren. Urtero bezala, 13:15ean harrera eta agurra egingo zaie odol-emailei eta Untzaga Plaza hotolean denak elkarrekin bazkaldu aurretik, omenaldia egingo zaie urteetan odola ematen duten boluntarioei.

25, 50 eta 60 aldiz odola eman dutenei diploma eta oroigarria eman go diete Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko ordezkariak, esker onez. Herrika antolatuta banatzen dira oroigarriak eta diplomak eta guztira Debako bederatzi boluntariok jasoko dute omenaldia.

25 aldiz odola emateagatik, Federico Martinez Ferrero, Matilde Soto Aperribay, Jaione Urriolabeitia Sierra, Aitor Zinkunegi Zipitria eta Beatriz Zulaika Beitia omenduko

dituzte. 50 aldiz odola emateagatik omenduko dituzten Debako bi gizonetakoak hauek dira: Jose Luis Uranga Larrañaga eta Pedro Aprea Plata. 60 aldiz odola emateagatik omenaldia jasoko duten emakumeetakoak, berriz, ondoko hauek dira: M<sup>a</sup> Aranzazu Iriondo Urbietta eta Maria Naranjo Sanchez.



## Arbil jubilatuen elkartean antolatu diren tailerretan parte hartzeko deialdia

Debako Arbil jubilatuen biltokian proiektu berri bat abiatu da, hirugarren adinekoei edota 55 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta. Horretarako, Lahar Elkargoak dinamizatzaile berri batekin kontaktatu du jadanik (Eneko Cabello), eta Debako Udala, gizarte zerbitzuak eta jubilatuen batzordearekin elkarlanean koordinatuta eramango da aurrera ekimena. Datozen hiru hilabeteotan tailer desberdinak egiteko asmoa dago.

Proiektuari hasiera emateko, bi tailer eskainiko dira hasiera batean, biak ala biak doan:

**-Osasunaren ongizatearentzako erlaxazio tailerra.** Urriaren 8an eman zitaion hasiera tailer honi eta astelehen guztietan egingo dira saioak, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara.

**-Kontzentrazioa, arreta eta memoria hobetzeko entrenamendu**

**tailerra.** Urriaren 9an egin zen lehenbiziko saioa eta hurrengo klaseak asteazkenetan izango dira, 18:00etatik 19:00etara.

Izena emateko aukera egongo da aurrerantzean ere. Horretarako edota informazio gehiagorako, interesatuek Arbil biltokiko bulegora jo dezakete zuzenean -telefono zenbakia: 943 19 22 15-.

Herritarrak tailer hauetan parte hartzeri animatu nahi ditugu, etorkizunean antzeko egitasmo gehiago antolatzea baita helburu nagusia. Azken finean, adineko pertsonen bizi kalitatea mantendu eta hobetzea lortu nahi da saio hauekin. Hori dela eta, beste hainbat udalerritan egiten den bezala, Deban ere proiektu hau luzarorako izatea nahiko genuke.

Arbil jubilatuen elkartea



NEKANE GOIKOETXEA

### Bizi minaz

Bizitzeko irrika iradokitzen du bizi minak, bizitzeko gogo. Gogo handiagoa izan ohi da bizitzari ertzak eta hortzak ikusten dizkiogunean.

Libe izan zen 2018ko lehena. Amari bularrereko minbizia aurkitu ziotela eta negarrez hasi zitzaigun klasean. Zur eta lur geratu ginen denok klaseko kontuak hutsal sentituz. Ez genekien nola lagundu. Astez aste Liberen aurpegia behatzen genuen klasean, gaur hobeto dago... Libek erakutsi zigun bere 18 urterekin nola egon beragandik hurbil gaiari buruz gehiegi hitz egin gabe. Aurten pozik sartu da klasera opor ostean, ama (eta bera) primeran daude.

Xabi musean gogoratuko dut beti. Aho-tsa loditzen zitzaion *hordago* bakoitzean. Abila zen jokoan, nahiz isila zen oso. Barrearen bitartez komunikatzen zen gehiago, lotsati amorratu horietako bat. Bere minak ere beretzako gordetzen zituen, beno, buruko gaitza etorri arte. Gero inguruko en laguntza behar izan du eta ikasi du bes-teen laguntza onartzen eta eskertuta egoten. Eskertza horrek irauten dio bihotzean Josuneri uztailetik hona, Xabi agurtuz geroztik. Bizi mina utzi dio, tristura eta eskertza infinitua.

Aste santua Kuban igaro zuen iaz Julen-ek. Lagun zaharrekin elkartu zen bertan. Gaixo itzuli zen. Tropikoan esna zitzaizkion aspalditik gorputzean lanean ari ziren zelula gaixoak eta min ematen hasi. Aste honetan kendu diote birika zati bat. Arnasa hartzen ikasten dihardu orain. Ospitalean bera zaintzeko txandak antolatu dizkigu gertukoari eta pribilegiatuak sentitu gara horrelako momentu intimoan bere ondoan egotea nahi izan duelako. Jone, ostiral gauean 11:00etatik 8:00etara; Iñaki, larunbat goizean 8:00etatik 14:00etara; Enrike, ...

Beste hainbat kuttunek bidean jarri gaituzte. Zorte handia daukagu zuek ondoan izateaz. 2019 hobe opa dizuegu.



# EUSKAL JAIA 2018



Hona hemen aurtengo Euskal Jaiaren errepasoa, iruditzen. Lerro hauen bitartez, eskerrak ematea baino ez zaigu gelditzen. Mila esker jai herrikoi hau aurrera ateratzen lagundu duzuen guztiguztioi. Langile bolondresak, musikariak eta dantzariak, marmitako lehiaketako parte-hartzaileak, Zuhatzaren zozketarako produktuak oparitu zituzten ekoizle eta baserritarrak... eskerrik asko, bene-benetan, denoi!!





# EUSKARALDIA

## Euskararen herria euskaldunago egiteko ariketa



Ander Salegi

**Indartsu dator Euskaraldia, Jaurlaritzak eta Euskaltzaleon Topaguneak sortu eta beste hainbat erakunde publiko eta pribaturen babesarekin martxan den ekimena.**

### BI ROL AUKERAN

Euskaraldian, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez, herritarrek dituzten hizkuntza-ohiturak astindu eta euskara gehiago erabiltzeko bide berriak esploratu nahi dira. Nola? Bakoitzak bere inguruan, familian, lanean, lagunartean, herriko dendetan,... bi rol hauetakoren bat hartuz:

**Ahobizi:** Euskaraz egingo die ulertzen duten guztiei. Ezagutzen ez dituenekin lehen hitza euskaraz egingo du, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai.



**Belarriprest:** Euskaraz dakitenei euskaraz egiteko eskatuko die. Euskara ulertzen duela adieraziko die eta berekin euskaraz egin dezatela eskatu. Berak, indar eta ahalen arabera, euskaraz edo erdaraz edo bietara erantzungo die.



*Ahobizi* edo *Belarriprest* izatea ez dago euskara jakitearekin lotuta. 11 egun horietan hartuko den jokaerarekin baizik. *Belarriprestak* aukera berriak irekitzen ditu, orain arte itxita-edo zeudenak. *Ahobiziak* aukera horiek aprobetxatzen. Bi rolak dira garrantzitsuak.

Pentsatu:

1) Zernolako ingurua daukazu? Aztertu etxea, kuadrilla, lantokia,... Askorekin hitz egiten duzu erdaraz? Gutxi batzuekin bakarrik?

2) Zenbat egongo zara 11 egun horie-

tan etxekoekin, kuadrillakoekin, lantoki-koekin...

3) Ze indar, ze gogo, ze ahalmen,... duzu horiekin egun horietan euskaraz egiteko? Errazagoa izango da urrutiko hizkuntza-ohitura batzuk aldatzea, hurbileko asko baino...

Zure burua erdarazko harreman-ohitura horiek aldatzeko moduan ikusten baduzu, gogotsu eta indartsu, *Ahobizi* izan zaitezke!

Aurtengoz gehiegitxo iruditzen bazazu baina egoera berriak esperimentatze-

ko prest bazaude, izan *Belarriprest!* Ez duzu inguruko hizkuntza-ohitura guztiak aldatzea lortuko, baina inguruan izango duzun *Ahobiziren* bati esker, harreman bat edo beste euskaldunduko duzu.

Euskaraldia ez da kanpaina bat; ez da jaialdi bat; ez da mobilizazio bat. Euskaraldia arnas luzeko ekimena da. Ulermena oinarri hartuta, elkarriketa berriak ireki nahi dituenak. Aurten *Belarriprest* dena, datorrenean *Ahobizi* izan daiteke. Poliki baina seguru. **Euskaraldia, 11 egun euskaraz.**



Euskaraldian parte hartze-ko izena eman behar da: on line egin dezakezu, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) (edo [izenematea.euskaraldia.eus](http://izenematea.euskaraldia.eus)) web orrian; nahiago baduzu, ordea, izenemate orria bete dezakezu udaletxeko harrera bulegoan, udal liburutegian, turismo bulegoan, edo Euskaraldiak asteburuetan ipiniko duen informazio mahaietan. Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, bi bide hauek dituzu: [debakoeuskaraldia@gmail.com](mailto:debakoeuskaraldia@gmail.com); 688.66.3744.

Azaroaren 11n, eguerdian, Euskaraldiarekin bat egin duten taldeen aurkezpen publikoa egin asmo du herriko lantaldeak.



- EUSKARALDIA** Euskal Herri osoan garatuko da:
- Euskal Herriko zazpi lurraldeetan
  - 375 herrik baino gehiagok hartuko dute parte
  - Euskal Herriko biztanleriaren %90etik gora bizi den eremuetan
  - 10.000 biztanleko herri guztietan
  - Hiriburu guztietan
  - 120 sustatzaile orokor (herrietan beste ehundaka)

## “Mila arrazoi daude jauzi egiteko, mintzalagun bihurtzeko”

Zuhatza Euskara Elkartek Mintzalagun eta Gurasolagun egitasmoak eskainiko ditu Deban. Zabalik dago izena emateko epea

**Zar da mintzalaguna?**  
Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenok eta mintzalaguna nahi badugu, parte hartu dezakegu programan hau.

**Zuzenbetea?**  
Euskaraz hitz egiteko, gurekin elkarlanean, mintzalagun bihurtzeko, gurasolagun bihurtzeko, gurasoekin elkarlanean hitz egiteko, laguntza emateko eta hitz egiteko.

**Nola hitz egongo da?**  
Aholku bidez, erabilera, hitz berrak, jokinak, hitzak, jokinak... Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenok eta mintzalagun bihurtzeko, gurasolagun bihurtzeko eta hitz egiteko.

**IZEN EMATEA: URRIAN**  
<http://www.zuhatza.org>  
943 191 383

Estatu osorako, hurrengo programak mintzalagun bihurtzeko, gurasolagun bihurtzeko, gurasoekin elkarlanean hitz egiteko, hitz egiteko, Mintza Egunak.

**Parte hartzeko baldintza**  
Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenok parte hartu dezake.

**Izen emateko epea**  
Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenok eta mintzalagun bihurtzeko, gurasolagun bihurtzeko eta hitz egiteko.

**Modua**  
Zuhatza Euskara Elkartearen bitartez.

**Informazioa**  
Zuhatza Euskara Elkartea, Bar Lehia, 12 biluzia, 943 19 10 50 / 11dekoak@zuhatza.org

“Egin jauzi”. Lelo horrekin abiatu da aurten Mintzalagun egitasmoa Euskal Herrian. Deban, ekimenean izena emateko epea zabalik dago eta talde bat martxan jarri da jadanik. Zuhatza Euskara Elkartek kudeatzen du programa hau.

Euskal Herrian 1000 mintzapraktika talde baino gehiagotan elkartzen dira, astero, ordu batez, 6.000 mintzalagunetik gora.

Dakizuen bezala, euskaraz hitz egiteko erraztasuna duten pertsonak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzen dituen programa da Mintzalaguna. Etxetik kalera bi jauzitan salto egiteko aukera eskaintzen du egitasmoak: etxeko bakardadetik taldeko girora lehendabizi eta, taldeko konplizitateaz, kaleko erabilerara gero. “Euskaraz lagunartean, modu eraginkorrean eta giro ezin hobean aritzeko aukera eskaintzen da norbere herri edo eskualdean bertan!”.

Ekimenean parte hartzeko baldintza bakarra euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordu batez batzeko konpromisoa hartzea da

(Mintzalaguna doan da).

### Gurasolagun

Era berean, mintzalagunen ohiko dinamizazio gaitan, Gurasolagun ekimenean parte hartzeko gonbitea ere egin nahi du aurten Zuhatzak, Zubi eta Mogel guraso elkarteekin elkarlanean. Gurasoak biltzen dituen mintzalagunen adarra da Gurasolagun. Etxeko hizkuntza-ohituretan eragiteko asmoz, seme-alabak dituzten pertsonen artean ahaztutako hizkuntza freskatzeko, gurasoaren artean euskaraz mintzatzeko eta seme-alabekin euskaraz komunikatzeko ideiarekin sorturiko adarra.

Mintzalagun edo Gurasolagun programetan parte hartzeko interesa izango bazenu, pasa Zuhatza elkartearen bulegotik, deitu 943191383/632043322 telefono zenbakietara edo idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera.

**Egin jauzi eta bihurtu mintzalagun! Eman izena!!**

Zuhatza Euskara Elkarteak  
Mintzalagun Taldea



## Landa eremuan hainbat hobekuntza egin ditu Itziaroko Auzo Udalak

Parte-hartze prozesu bidez galdetegia burutu zuen Itziaroko Auzo Udalak joan den urtean, herritarren lehentasunak jaso eta kontuan hartzeko asmoarekin. Emaizak jasotzean, lehendik zetozen ageriko premiez gain, hainbat eskaera nabarmendu ziren. Horietako ugari landa eremuak bizi duen egoeraren erakusgarri dira.

Jakinekua da baserri bideen hobetzeak duen garrantzia, kontuan izanik urte asko igaro direla bide hauek berriro zirenetik. Aurrekontu altua dela eta, pixkanaka garatu beharreko plangintza da ordea, eta horretan ari da Auzo Udala.

Bideek duten lehentasuna ahaztu gabe, bada zer hobetu landa eremuan. Irail hasieran egindako ohiko osoko bilkuran, horietako zenbait aktuazio babestu eta jadanik martxan direnak sendotzea onartu zen.

Aipagarria da, adibidez, auzoetako mapa eta baserri seinaleak berritzeko ekimena. Egoera kaskarrean eta eguneratu beharrean zeuden, aspalditik datorren erreklamazioak adierazten duen bezala. Baserritarrek ingurua ondo seinalatuta izateko duten beharraz gain, gero eta gehiago dira gure inguruetara datozen bisitariak. Honela, toponimia eta paisaia ezagutzera eman eta ibilera erraztea litzateke helburua.

Batetik baserri bakoitzaren izena eta norabidea seinalatzen duten gezi berriak jarriko dira puntu desberdinetan, lehengo izen eta kokapenak errespetatuz. Ekimen hau epe motzean eramango da aurrera.

Bestetik, lehendik diren mapa panelen ordez irudizko plano panoramikoak ipini-ko dira. Dagoeneko jarriak dira Arriola, Elorriaga eta Itsaspeko eremuak dagozkienak, eta laster jarriko dira Lastur, Endoia, Mardari, Arroa-Erreka eta Egian ere. Era berean, Itziaroko herrigunearen plano panoramikoak jartzea ere aurreikusi da, eskaerak aintzat hartuta. Plano berriak finkatzeko, lehendik ziren egiturak konpondu eta baliatu dira, eta metalezko teilatu berria jarri zaie, gehiago iraun dezaten. Debako Kaioa enpresari eman zaio azterketa, irudi berrien ekoizpena eta muntaiaren ardura.

Era berean, Lasturko Presaola frontoia pintatu eta egokitu da, itxura eta argitasuna hobetuz. Horrekin batera, bolatokiaren aldean estalki berria eraiki zaio, euria eta haizearengandik babesteko.

2017an abiatutako hobekuntza proiektuari jarraituz, lehenago Lasturko plaza gunean egin ziren hobekuntzen jarraipena litzateke hauxe. Orduan Lasturko plazako hesi eta babesak egokitu ziren, legez beharrezkoak diren segurtasun baldintzak bermatzeko.

Proiektua aurkeztu ondoren Eusko Jaurlaritzako Erein programak onartutako diru-laguntzari esker burutu dira lan hauek. Guztira 37.981,48 euroko kostea izan dute bi lanok.

Lan hauek guztiak Debemen Elkartearekin lankidetzan ari dira burutzen.

### Argiteria eta rokodromoa

Landa eremuko zenbait bidegurutzetan, argiteria jartzeko obrak laster hasiko dira. Lehendik datorren eskaerari erantzuten dio jarduera honek, izan ere gune eta pasoko bide zenbaitek ez du behar besteko ikuspenik gauzez. Kontuan hartu behar da hauetako zenbait bidegurutzetan kokatzen direla zabor edukiontzia. Oraingoz lau

puntu aurreikusi dira, eta aurten horietako bitan jarriko da argiteria: Egian Doniene baserriko bidegurutzetan eta Lastur-Endoia bidegurutzetan, Aldazabal baserriaren parean. 2019an beste bi jarriko dira. Eguzki energiaren hornituzko farolak jarriko dira, jasangarritasun irizpideak bermatuz. Debako Udalaren hornitzailea den Ekiona enpresa arduratuko da lan hauetaz. Lau farola hauek eskuratu eta muntatzeko, 10.104,37 euroko diru-laguntza bideratu du Eusko Jaurlaritzak.

Era berean, herritarren eskaerari erantzunez, rokodromoa jartzeko asmotan da Itziaroko Auzo Udala.

Aukera desberdinak aztertu ondoren, Lasturko gunea jo da egokitzat, horrela aisialdi eta mendi-giroko eskaintza bertan sendotzeko. Frontoi eraikinaren atzealdeko horma baliatuko da rokodromoa kokatzeko. Edozein adin eta mailara egokitzeko moduko horma jarriko da, eta bertan boulder erako eskalada praktikatu ahal izango da. Proiektua urte bukaerarako landuko da osotasunean eta pendiza egokitzeko da lehenik eta behin. Ekimen honen kostua, hondeatze eta guzti, 74.719,06 eurokoa da, Eusko Jaurlaritzatik jasoko den diru-laguntza 50.808,96 eurokoa delarik.

Baserri seinaleak, argiteria eta rokodromoa finantzatzeko diru-laguntzak, Eusko Jaurlaritzaren Erein programara aurkeztutako proiektuen bidez lortu dira. Aurrera begira ere, auzotarren eskaera eta premiak lehentasun, irizpide tekniko eta ahalmenen arabera bideratuz proiektu berriak elkarlanean garatzen jarraitzea da Itziaroko Auzo Udalaren asmoa.

*Itziaroko Auzo Udala*



# ERREPORTAJEA

Mendata institutuko bigarren mailako ikasleek aurreko ikasturte amaieran bidalitako hirugarren erreportajea duzue hau. Azken alean aipatu genuen bezala, kazetaritza genero hori (erreportajea) aztertu dute aurten ikasleek, Euskara eta Literatura irakasgaian. Hiru hilabetez baliabide ezberdinak landu dituzte, amaieran, bakarka, erreportaje bat sortzeko. Ikasleek aurkeztutako lan batzuk (hiru guztira) jaso ditugu erredakzioan. Eta, zalantzarik gabe, atseginez argitaratzen ditu *Berriketan*-ek irakurle guztien eskura egon daitezen. Uztailean kaleratu zen lehenengoa, abuztuan bigarrena eta hirugarrenak ale honetan ikusten du argia.

## Euskara Euskal Herrian atzo eta gaur



Euskarak eholuzio handia eduki du azken urte hauetan, eta erreportaje honetan, hizkuntza honen egoera ikusiko dugu azken urteetan zehar.

### Euskara Francoren garaian

1946ko uztailearen 18tik 1978ko abenduaren 6ra arte euskara debekatuta egon zen Euskal Herrian Franco diktadoreak Espainia elkartuta egotea nahi zuelako. Beraz, urte horietan jaio ziren haurrek ez zuten euskara ikasteko aukerarik eduki eta pixkanaka euskara zekitenen kopurua



jaitsiz joan zen, nahiz eta batzuek etxean ikasteko aukera izan zuten. Gainera, eskola publikoetan gaztelaniaz hitz egiten zuten. Norbait euskaraz hitz egiten harrapatzen bazuen irakasleak, erregelarekin behatzen edo bizkarrean joko zuten.

Horregatik, euskararen egoera okerra zihoala ikusita, ikastolak sortu zituzten. Ikastolak euskara sustatzea du helburu. Garai horretan, debekatuta zegoenez, euskara zekiten irakasle batzuek beraien etxetan ezkutuan euskara irakastea erabaki zuten.

Horrela, euskararen egoera hobetu egin zen urteetan zehar baina, hala ere, eskola publikoetan zebiltzan haurrek gaztelaniaz hitz egiten jarraitu zuten oro har. Jose Luis Aperribaik dio bere lagunen artean gehienek gaztelaniaz hitz egiten zutela, baina eskolara joaten ziren itziartarrek,

berriz, beraien artean euskaraz hitz egiten zutela, beraien etxeko hizkuntza zelako.

### Aldaketa garaia

1975ean Franco hil zenean, diktaduratik kanpo geratu zen Espainia. Urte batzuen ondoren eta euskaldunek asko borrokatzearen ondorioz, euskara berriro onartu zuten Euskal Herrian eta hizkuntza ofiziala izendatu zuten EAEn (ez horrela Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian). Halaber, eta horretarako sortu ziren legeezi esker, eskola publikoetan ere hizkuntza hau onartzen hasi zen. Denborarekin, euskaraz hitz egiteko beldur hori desagertzen joan zen eta kalean ere biziberritzeari ekin zion. Gaztelaniaz zekitenak, beraien seme-alabekin euskaraz egiteko edo lana euskaraz egin ahal izateko, euskara ikastera joaten hasi ziren euskaltegiara edo horretarako antolatutako gau eskoletara.

Jose Luisek zera nabarmendu du: "Lotsak bultzatu ninduen euskara ikastera, Euskal Herrian nengoen eta galdera bat euskaraz egiten bazidaten nik ez nekien zer erantzun". Beraz, hizkuntzaren egoera asko hobetu zen Euskal Herri guztian, nahiz eta garai batean ia desagertzearekin.

### Gaurko egoera

Gaur egun euskararen erabilera asko areagotu da, eskola publikoetan hau ere


hitz egiten delako eta gazteek zein helduek hizkuntza ikasteko aukera izan dutelako.

Gero eta jende gehiago doa euskaltegiara eta euskararekin lotutako zenbait lan ere badaude (euskara teknikariak, udalako euskara zerbitzuak, unibertsitateko ikasketak eta abar). Garai haiek asko kalte zuten hizkuntza hau eta badaude oraindik euskara ikastera animatu ez diren pertsona batzuk ere.

Etorkizunean gustatuko litzaidake Euskal Herrian denok hizkuntza hau ikastea, baina hori gure esku dago askotan. Jose Luisek dioenez, euskara gehiago erabiltzea gure borondatearen menpe dago eta, ondorioz, euskara hitz egiten jarraitzen badugu egoera hobetzen joango da. Bere ustez, dakitenekin hitz egiteaz gain, ez dakitenekin edo gutxi ulertzen dutenekin ere euskaraz egin beharko genuke, poliki-ki bada ere. Hori da Katalunian gertatzen ez dena. Beraiek denekin hitz egiten dute katalanez eta horrela hizkuntza hori bizi-rik eta indartsu mantentzen dute.

### Euskaraldia

Beraz, euskaraz hitz egiten jarraitu behar dugu, ez bakarrik dakitenekin, baizik eta ulertzen dutenekin ere. Hori praktikan jartzeko aurten euskal erakundeek *EUSKARALDIA* antolatu dute, azaroaren 23tik abenduaren 3ra; eta 11 egun horietan euskaldunok *ahobizi* izango gara eta ulertzen dutenekin ere euskaraz egingo dugu. Ulertzen dutenek ere *belarriprest* izatea hautatzen badute, pegatina bat eramango dute eta, nahiz eta beraiek gaztelaniaz egin, ingurukoiei adieraziko diete beraiek euskaraz egitea nahi dutela. Aurrerapauso handi bat izan daiteke gure hizkuntza ohi-turak aldatu eta euskararen erabilera indartzeko.



MAITE APERRIBAI

## Irakurketa Kluba martxan dago Ostolaza Udal Liburutegian

Urriaren 24an abiatu da Irakurketa Kluba udal liburutegian, Unai Villenaren "Hauts haietatik" liburua ardatz hartuta. **Hurrengo saioa azaroaren 28an egingo da**, Ainhoa Aldazabalen gidaritzapean, eta "Del color de la leche" (Nelly Leyshon. Sexto Piso, 2013) eleberria izango dute hizpide hitzorduan. 19:00etatik 20:30era bitartean egingo da saioa.

Bakarkako irakurketa taldean parte-katzea bilatzen du ekimenak. Hilabete batean euskaraz irakurritako liburua landuko da eta hurrengoan, berriz, gaztelaniaz irakurritakoa. Partaide bakoitzak bere kontura lortu beharko du saio bakoitzean landuko den liburua.

Udal liburutegiak jakinarazi duenez, Irakurketa Klubean parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, liburutegian -16 urtetik gorakoek parte hartu dezakete ekimenean-. Informazio gehiagorako: [ostolaza@deba.eus](mailto:ostolaza@deba.eus) eta 943 19 25 60.

Azaroko saioaren ostean, otsailean izango du jarraipena Irakurketa Klubak. Asier Serrano idazleak gidatuko ditu 2019ko negu eta udaberriko hitzorduak.

## Tene Mujika Bekaren XIII. deialdia egin dute, historia hurbilaz idazteko

Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak XIII. Tene Mujika Beka sortu dute. 6.000 euroko diru-laguntza emango diote irabazleari.

Gure herriaren azken 70-60 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke (adibidez: biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarrizketak, ikerketak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, aurrez argitaratu nahiz saritu gabea. Abenduaren 10ean amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Oinarriak ikusteko eta informazio gehiagorako: [artxiboa@deba.eus](mailto:artxiboa@deba.eus).


## "Hamaika gezur" diskoa plazaratuko du Jokin Lasak

Urriaren amaieran edo azaroaren hasieran ikusiko du argia Jokin Lasaren diskoak. "Hamaika gezur" izango da bere izenburua -azaldu du musikariak-. Hain zuzen, hamaika kantuz osatua dagoelako, bate-tik; baina, bestetik, hamaika horrek denok ezagutzen dugun beste zentzu bat ere baduelako".

Aurrerapen gisa aipatu du debarrak diren edo "debartatu" direnen kolaborazioak daudela diskoan, Gorka Agirrezabala eta Nahia Eguskizagarenak, esate baterako. Eta kanta batean Joseba Sarrionandiak ere parte hartzen du, bere olerki bat errezitatuz.

Kaki Arkarazoren gidaritzapean grabatu da lana. Eta hark ezezik, beste musikari batzuek ere kolaboratu dute diskoan, hala nola Karlos Aranzegik (Bide Ertzean) baterian eta Adrian Elustondok (Kauta) baxuan.

Aurreikuspenen arabera, hilabete amaieran edo azaroaren hasieran izango du Lasak bere lana eskuen artean. "Handik aurrera, zuzenean aurkezteko deien, eskarien, zain izango nauzue", gaineratu du.



## Ipuin kontalarien hurrengo saioa azaroaren 11n

Harrera beroa egin zitzaion urriaren 7an Debako kontalariek Agirre jauregian eskainitako saioari. Ikasturteari hasiera eman zion hitzorduak hamarnaka haur eta guraso bildu zituen ispiluen gelan.

Azaroaren 11n (igandea) egingo da hurrengo saioa. Adin tarte desberdinentzat antolatzen dira ipuin kontaketa: Haur Hezkuntzakoentzat, 17:00etan, eta Lehen Hezkuntzakoentzat 18:00etan.



## Debako "Flippandi" eta "Ioitu" taldeak sartu dituzte Gazte Robotika txapelketan

"Gazte Robotika" Euskadiko Hezkuntza Robotika Txapelketaren bigarren edizioa Ermuan jokatu zen, irailaren 22an. Ehundik gora parte-hartzaile bildu ziren Izarra Centren, guraso eta inguruetakoa herritar ugarirekin batera.

8 eta 16 urte bitarteko partaideak aritu ziren lehian. Txapelketa bi kategoriatan banatu zen (*1 vs 1 Game* eta *Kolore Kolore*), eta atal bakoitzeko hiru talderik onenek jaso zituzten sariak:

*1 vs 1 Game* kategorian:

-Lehen saria: *Ermutante* (Ermua),

Martxel Carrascosa eta Nadim Gomez; Bigarren saria: *Donald Trump* (Eibar), Aimar Garcia, Julen Sanz eta Aimar Gallego; Hirugarren saria: *Flippandi* (Deba), Ubong Urkiola eta Mikel Franco.

*Kolore Kolore* kategorian:

-Lehen saria: *Krakak* (Mutriku), Aimar Alvarez eta Ainere Ibarrola; Bigarren saria: *Ioitu* (Deba), Iban Arrizabalaga, Jon Anuntzibai eta Ibai Perez; Hirugarren saria: *Gilberto* (Eibar), Gorka Vila, Aitor Larramendi eta Iñaki Iglesias.



## Burdin Kurutzek eta Luzarok antolatutako mendi irteerak, abian

Burdin Kurutz Mendi Taldeak eta Luzaro ikastetxeak bederatzi irteeraz osatutako egutegia prestatu dute 2018-2019 ikasturterako. Irailean eman zieten hasiera mendi ibilaldiei eta urriaren 28an egingo da bigarren txangoa: Arantzazu-Urbia-Malkorra-Arantzazu (egun osokoa).

Hilabete bakoitzean txango bat egitea aurreikusten da, inguruko mendi eta ingurune ezberdinak ezagutzeko aukera eskainiz. Berez, 3. mailatik gorako ikasleei zuzenduta daude irteerak, baina txikiagoek ere parte har dezakete, betiere guraso edo laguntzaileekin joanez gero.

Umeei zuzenduak izanik, ibilaldi errazak eta erosoak dira. Irteera puntua gehienetan estalitako pasealekua izango da (autobus geltokia) eta irteera ordua, berriz, goizeko 8:30. Txango gehienak egun osokoak dira -arratsaldeko 4etan edo 5etan itzuliz-, baina badira egun erdikoak ere.

Mendi irteerak doan izango dira ikasleentzat, Eskola



Kirolaren barruan baitaude; bazkideek, nagusiek eta gurasoek, ordea, bidaia ordaindu beharko dute.

Urriaren 28an Urbia aldera eta azaroaren 25ean Aralarra joateko proposamena egin dute antolatzaileek. Urtarrilaren 20an Ernio aldera egingo da irteera eta, aurrera begira, beste hainbat txango iragarri dituzte: Urkiola-Urkiolagirre-Atxarte, ibilaldi neurtua, Ondarroa-Mutriku-Deba (kanboarrekin), bi eguneko irteera bat maiatzean edota Andutz Eguna.

## Langabeen kopuruak beherantz egin du Deban

Debako langabeen kopurua %28 txikitu da azken urtean. Hori ondoriozta daiteke behintzat Debegesak Debabarreneko enpleguaren egoeraren inguruan plazaratu duen txosteneko datuak aztertuta. Txosten horren arabera, aurtengo abuztuan 169 debar langabe zeuden erregistratuta Lanbiden -103 emakumezko eta 66 gizonezko-, iazko abuztuan baino 67 herritar lan-

gabe gutxiago, alegia. Datuek hobera egin dute Debabarrena eskualdean ere; "Langabeen kopurua %12,5 jaitsi da: 2017an 4.286 langabe zeuden erregistratuta Lanbiden eta 2018ko abuztuan 3.747".

Lanbidek Debako Eguneko Zentroan eskaintzen du bere zerbitzua. Astearte eta ostegunetan egoten da zabalik (8:00-15:00).

## Julen Zabaleta Barrenetxeak jaso du eskualdeko Gure Balioak Saria

Julen Zabaleta Barrenetxea marrazkilaria jaso berri du Debabarreneko Gure Balioak Saria 2018, "bere legatu historiko-artistiko garrantzitsuarengatik". Sortzez elgoibartarra, baina 60 urte baino gehiago daramatza Eibarren bizitzen. Ume-umetatik izan du marrazketarako zaletasun handia eta hasieratik erakutsi zuen talentu berezia horretarako. 97 urterekin, marrazten jarraitzen du "maisuki eta trazu sendoz".

Gizarte, enpresa eta hezkuntza arloan diharduten eskualde-



ko sei lagunek osatutako epaimahaiak erabaki du saria Zabaletari ematea, "bere zalantzarik gabeko talentu, ekimen eta izaera altruistarengatik; beti prest bere ilustrazio lanak behar izan dituzten pertsona eta erakundeekin kolaboratzeko eta bere ekarpena egiteko". Marrazketarako duen pasioari leial jarraituz, nabarmentzekoa da liburu ilustratzaile gisa Julen Zabaletak egin duen ibilbide emankorra, "eta ez du inoiz zalantzarik egin bere marrazkiak uzterako orduan, trukean ezer eskatu gabe".



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Itur kalea, 9 • Tfnoa.: 943 192 722 • DEBA

# AGENDA

## URRIAK 26, OSTIRALA

-19:00. **Euskaraldia.** *Ahobizi* eta *Belarriprestek* hartuko dituzten hizkuntza-jokaerak argitzeko saioa, Agirre jauregian. Aurrez eman behar da izena ([debakoeuskaraldia@gmail.com](mailto:debakoeuskaraldia@gmail.com) edo 688 66 37 44).

-19:30. **Azken ostirala.** Elkarretaratzea euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen alde, plazan.

## URRIAK 28, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera,** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Arantzazu-Urbieta-Malkorra-Arantzazu (egun osokoa).

-11:30. **Kantu Eguna,** Debako Kanean Kantuz-ek antolatutako topaketa. Egun osoko egitaraua prestatu dute.

-11:30. **VI. Manuel Mateos Memoriala** (modalitate mistoa), Deba Xtreme Kirol Taldeak antolatuta. Luzera: 6,2 km. Izen-emateak: [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com).

## AZAROAK 1, OSTEGUNA

-XXV. **Itziarko peria.** Goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara, Itziarko poligonoan. Urtero bezala, bertan izango dira artisauak, aizkolariak, talogileak, ganadua, makineria, kinkileroak...

## AZAROAK 10, LARUNBATA

-13:00. **Bisita gidatua: Flysch beltza.** Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

## AZAROAK 11, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak.** Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan: Haur Hezkuntzakoentzat/ 18:00etan: Lehen Hezkuntzakoentzat.

## AZAROAK 17, LARUNBATA

-10:30. **Bisita gidatua: Lastur familian.** Errota, taloak eta herri-jolasak familia osoarentzat. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

## AZAROAK 18, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua: Gotikoaren altorra,** Deban (Santa Maria eliza ezagutzuz). Gaztelera.

## AZAROAK 23-ABENDUAK 3

-11 egun euskaraz. EUSKARALDIA.

## AZAROAK 25, IGANDEA

-Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna.

-8:30. **Mendi irteera,** Burdin Kurutz eta Luzarok antolatuta. Aralar (egun osokoa).

## Beldur Barik lehiaketa

-Gazteei zuzendutako ikus-entzunezko Beldur Barik lehiaketa martxan da. Aurtengo edizioko leloa "Beldur barik jarra-rra partekatu" izango da, sare sozialei erreferentzia eginez, kultura matxistaren zein indarkeria sexistaren adierazpen desberdina-erlaldatzeko norbanako zein taldekako konpromisoa zabaltzeko. 12 urtetik 26 urtera bitarteko gazteek aurkez ditzakete lanak, azaroaren 9a baino lehen. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).



## XIII. Tene Mujika Beka

-Abian jarraitzen du Tene Mujika beka. Debako Udalak egin du deialdia, Elkar argitaletxearen laguntzarekin, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaldu eta gure literatura aberasteko helburuarekin. Lanak abenduaren 10a baino lehen [artxi-boa@deba.eus](mailto:artxi-boa@deba.eus) helbidera bidali behar dira. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

## Ikastaroak KZgunean

-KZguneak goizeko ordutegia izango du azaroan (9:00-13:00). Hainbat ikastaro eskainiko dira: software librea, ofimatika, smartphoneak eta tabletak, Google Apps, sare sozialak 2.0, oinarriko internet... Ikastaro horiez gain, urruneko formazioa ere eskaintzen du KZguneak. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus).

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **azaroak 9, 10, 11, 19, 20, 21, 22.**

Burgoa Zuazo: **urriak 26, 27, 28.**  
**azaroak 5, 6, 7, 8.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: azaroak 10 eta 17

BURGOA ZUAZO: urriak 27 / azaroak 3

9:30 - 13:00



**Taxi Alain Deba**

636 135 008  
alain@taxideba.eus

[www.alain.taxideba.eus](http://www.alain.taxideba.eus)

WiFi

**ZERBITZUAK**

- ▶ Partikularrentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Enpresentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Aireportuetara joan-etorriak
- ▶ Ekitaldiatarako luxuzko zerbitzua

**EZAUGARRIAK**

- ▶ Larruzko eserleku berogarriak
- ▶ wifi-konexioa
- ▶ Android eta iOS gailuentzako kargagailuak



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



MARJE CASTRO IRIBAREN

MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarrak

25 URTEKO ESPERIENTZIA

DEBA

Tel.: 677 557 615

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

RAIKETAK S.L.  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

[sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzza

943 191 383  
[berriketan@zuhatzza.com](mailto:berriketan@zuhatzza.com)



**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**LIGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

API  
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunidadeen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



**ASKETA, S.L.**

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 2 / 05 / 049  
NIVEL 2

**Uzuri**  
optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

ZURE ENTZUMENA  
ZAINTZEN



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12





# IZENEMATEA

- Udaletxeko harrera bulegoan
  - Turismo bulegoan
  - Liburutegian
  - Euskaraldiaren informazio-mahaian
- edo, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)

